

Martin Ugalde

In: Aulestia Txakartegi, Gorka (bil.): *Erbesteko euskal literaturaren antologia*, J.A. Ascunce, Donostia, 1992: 224-253.

Martín Ugalde.

Iltzalleak.

Caracas: 1961. 13-28 orr.

Tolosa aldetik ba'zetoztela!

Billabona'raño eldu zirala!

Amasa bidetik sartu ta Naparro aldetik zetozten beste karlistekin batera Belabieta'tik bera, Goiburu'tik barrena, tren bidetik ziar, faszistak ba'zetoztela!..

Errian alako otz-ikara bat sartzan asi zan Naparro aldeko nonbaitetik. Joxe Mari musikariak kamioi batean igo ta bere tronpeta oiua ikaragarri arekin erria punta batetik besteraño zulatu zuan. Nere aita lar-arramazkez arpegia urratuta Belabieta'tik etorri berria, Nikolax kaxetakua (erriko lenengo eriotza) menditik gorputzil jetxi berria, tronpeta soiñu aiek azken juiziokoak ziruditen.

– Ernani'ra, azkar!... –gure aitaren oiua.

Gure etxeko bost gela ta sukaldea aize ikaragarri batek birrindu ba'litu bezela geratu ziran bost minutuan.

Eta gu, etxe atarian, ia esku utsik.

– Utzi zazu dana, emakumea, bi edo iru eguneko kontua izango da ta!...

Amak bere gauzatxoak eraman nai; aita, berriz, beranduegi, izango ote zan kezkarekin, biak asarretu ziran.

Tranbeko zentralaren aurrean bi bagoi jarri zituzten bide zabalean zearka, ta barruan eizeko eskopetekin dozena bat gizona zai. Goia'neko, Zuñiga'neko, Garagorri'neko, bizi-lagun guziak bereen seme-alaba, txakur eta gañerakoekin, oñez, beko plazatik ziar, kale berritik barrena, Ernani edo Lasarte bidean igesi...

Nere izebaren etxetik, Ernani'n (Perkaiztegi kalean, Portu aldera begira dagon etxe bat), Buruntza garbi-garbi ageri da.

Aita eguerdi arte ez zan azaldu. Gizarajoa lorik egin gabe, erria galdu miñakin, erdi zoratua zebillen. Ixtuitzan ia bera arrapatu zutela esan zi-gun, bañan ez zutela orren errez Buruntza artuko.

Izebari zituan itxas kataleju zar batzuek eskatu ta balkoitik mendi puntara begira egon zan luzaroan.

– Ez dek ezer ageri –esan zion osabari–; oraindik an zeudek gureak... Emendik ageri ez dan goibera batean zaudek.

Aita joan zanean, sapaldatak artu nituan, lau zatiko kataleju luze aiek belaunetan jarri ta atsalde oso-osea mendi gallurrera begira egon nintzan, ia aita an ikusten ote nuan.

Eta or, udarako eguzki ori-gorria mendi tontorrean luzatzen asi zan garaiean, ikurrin bat eldu zan gain-gañera; ikurrin gorri-ori bat!

Amari karraxi egin nion.

Ama etxean ez!

Anaiarekin urten omen zala.

Etxean izeba bakarrik.

Izeba Auxtiña jarri zan begira; bañan begi batean zeukan alako lañu txuri batek ez zion ezer ikusten uzten, nonbait. Gaxoa.

Orduan izebari iges egin nion.

Ernani'ko plaza nagusia kamioi ta jendez betea zengoan. "España" gudaitxas-ontziak bota ta lertu gabe jaso zuten obus aundi bateri begira jende asko. Zilarrezko pitxi aundi bat zirudin. Ura an lertu izan ba'zan, bost eun lagun akatuko zituan gutxienez. Ez jakiñak makiña bat ausarkeri egin azten zituan garai artan!

Eta an negoela, oi u bat.

Nere izena!

Kamioi baten gañean, ia nere kidako mutil bat. Ni baño bi urte zarragoa, Anjelito'k amabost-amasei urte izango zituan. Kanpotik etorritako Fernandez batzuen gure errian jaiotako mutil-laguna zan, gu bezin euskalduna.

- Nora ua?

Irun'a; goazemak!

- Zer egin bear dek ik Irun'en?

Zer?... Ara!

Eta txori arpegi arek eskopeta bat erakutsi ziran, jostaillu bat ba'litz bezela: "mendira niak, guazen"...

Egia esan, bildurtu egin nintzan: "Nik ez diat, ordia, ik bezela eskopetarik"...

- Joan adi Erriko-Etxera, ta au bezelako bat emango ditek...

Orduantxe bertan aita gogoratu zitzaidan. Faszistak Buruntza artu ba'zuten, nun ote zan gure aita?!

Bere billa asi nintzan plazan.

Ez zan iñundik ageri. Iluntzen ari zan.

Kamioi batetik nere izena urten zan berriz. Anjelito ba'zijoan, parrez, bere eskopeta aundi ura eskuan zamakiala.

Egia esan, inbiri pixka bat sortu zitzaidan barrenean.

Eta bildurti bat ote nintzan kezka jaio zitzaidan biotzean.

Ni Ernani'n geratu nintzan.

Umeak izan, mendira obus pusketa batzuek biltzera joan nintzen nere kidako beste mutil batekin. Eta an, baratz-lurretan lendabizi irikitako zauri beltz aietan, burni puska beroak jasotzen gabiltzala, alako: "Uuuuuuu... txissssssst!!... Uuuuuuuuu... Txissssssst!!"... txistu izugarriak, eta berebiziko trumoi burundara batzuek erortzen asi ziran gure gañera, zerutik edo!...

Gauden zuloan auzpez jarri ta iru edo lau orduan ia itz bat esan gabe egon giñan biok.

Noizpait bukatu zan, illuntzen asia zan da, eta laixterka, poltxiko guziak obus pusketaz beteta, biurtu giñan errira, plaza nagusitik barrena...

– Alto!

Nere laguna eskatz batean izkutatu zan. Ni, bakar-bakarrik arkitu nintzan, bildurrak, ito bearreko arnas uts-utsa biurtu ba'nintz bezela. Txapel gorri bat neukan aurrean, ametralladora txiki bat eskuan zeukala.

– ¿A donde vas?– Orain naparra ote zan nago. Orduan ez zitzaidan burura ezertxo ere etorri.

Poltxikuak ikutu ta zer zegoan ikusi zuanean:

– Anda, a casa! –ta ostikada bat eman ziran.

Plaza uts-utsa zegoan. Baztarretan, arkupetan, amar edo amabi txapelgorri, ta militar bat edo beste. Etxe leio guziak itxita zeuden, errian geratutako banakak zeletaka egon arren. Noizean bein, tiro ots bat, edo "pak-um... pak-umm!"..., edo "tap-tap-tap!"... illera bat, edo "pum!"... mortero edo kañoi burruna bat. Etxeko irugarren bizitzara eldu nintzanean, atea zabal-zabalik arkitu nuan. Xagutxo bat uxatzeko ainbat ots ez. Emen ere aize ikaragarri batek dana sakabanatu ba'lu bezela. Bat-batean: "bum!"..., ate soñu izugarria. Norbait ote zan; bañan ez; illunabarreko aizeak ego aldetik zekarkian ikara zan. Balkoiean izebak ainbeste maite zi-tuan bi xoxo ta biriarro bat beren karioletan ixil-ixilik; bildurtuta nonbait. Geletan oiak urratuta; sukaldean, ontzi guziak sakabanatuta; sapaldetan dana ankaz gora.

Etxe artako bakartasun osoa, ango gauz guzien ixilpea, gaizki itxitako iturri baten tantoak "tan... tan... tan..." aunditu ta izugarritzen zuten.

Ankak, egurrezkoak ba'lira bezela nabaitu nituan, eta malkorik gabeko negarra, zotinka, gora ta bera nabilkiela, jetxi nintzan kalera.

Nora jo, ordea?!

Gaua zan.

Donosti'ko bidea artu nuan; arako asmoa entzun nien gurasoei goizean. Portalondo'tik ziar, tranbe bide aldera abiatu nintzan. Argirik ez zan erri osoan. Ulunaren bildur, laixterka, baztarrik baztar.

Nola ote zeuden nere gurasoak, nere anaia? Aita bizirik atera ote zan Buruntza'tik?

Atsegindegi'ko etxe aundira eldu nintzanean, su argi gorri bat ikusi nuan; eta aldamenean, eun gudari bai zeuden gutxienez!

Ez ninduten ikusi. Gabeko arrantxoa ematen ari ziran, bullaka, euskera ta erdera nastuaz; birauka.

Ni, etxe aunditik bera artzera nijoala, uste gabean gudari batekin topo:

– ¿Quién va?!...

Erantzunik ez zitzaidan atera, ta eskuan zaramakian ixkilluari: "rrik-rrak" egin zion.

Gizon arek eskua bizkarrean jarri ziranean, betiko zerbait galdu ba'nuan bezelako zerbait nabaitu nuan barruan.

Gaba antxe igaro azi zidaten, tranbe gelditokiko baztar batean.

Goizean-goiz, kamioi batean sartu ta errira.

Andoain erdi utsa, bakarra, itun zegoan; itxaropen gabe geratzen diran gauzak bezela.

Txoperrak Nemexio bizilagunaren etxean utzi niñun.

– Nola ez aiz gurasoekin joan? –esan ziran Nemexio'k asarre-. Ez adi etxetik atera. Emen ez zio txorakeririk, kanpoan ikusten dutenari tiro bat eman eta seko usten ditek edozein kamio bazterrean. Imanol'ekin egon adi etxean.

Imanol bere semea zan, nere kidakoa; aita bezin luze ta mea. Gero beste alaba gaztetxoagoa, Arantxa, ta bi urte inguruko mutiltxo bat, Mikel.

Iñaxi, bere emazteak ere ala itzegin ziran.

Ez zeuden etxe artan lasai, ez.

Nemexio errian zan gizonik onenetakoa zan. Elizkoia, sendi maitea, iñorreri kalte egin baño lenago edozer gauza egingo luken gizona. Abertzalea bai, piña; egiazko gizonari dagokion señaide maitasunarekin batera bere izkuntz eta erriarekin jarraiki izan zan gizona.

Eta apala.

Erriko kontzejal zala, lan exkasi batek arrapatu ta apal-apal errikomutil izatera jetxi zan.

Bere lanean gizon atsegiña zan, bere egin bear guziak gogoz eta zintzo betetzen zituan. Eta erri guzian asko maite genduan Nemexio. Ala, errikomutil edo aguazil bezela bere tokia errian zegoala, bai, ta bere lagun geienak alde egin arren, bera antxe geratu zan bere sendiarekin.

Leiotik kanpora zur-saretik zeletaka egon giñan ango txapel-gorri ta militar eta Marroko'tar beltzeri begira, biotza estu-estu egin da.

Goiz apaldu genduan; oraindik egun argiz.

Gero errosarioa sukaldean exerita otoi egin, eta zazpik eta erdietarako oiean giñan.

Lo ez.

Imanol'ekin jarri niñuten oiean eta biok izketan, bakoitzak ikusi genituan gauzak alkar esaten, motz egin zitzaigun.

Obus pusketa batzuek eman nizkion nik, eta pozik geratu zan. Nemexio'k iru edo lau aldiz lo egiteko esan ere bai, asarre samar.

Noizpait, amarterdiak inguruan, lo artu zuan Imanol'ek. Zurrunka ba'zan beintzat. Nik, berriz, ezin lo artu. Ama, aita, anaia, izeba-osabak nabilzkin garbi-garbi buruan, errotarriak arto aliak berriz eta berriz lertu ta txetzen dituan eran.

Ordubata izango zan. Lo zorruan negon, artu edo ez artu.

"Tan, tan, tan!"... Iru atejokada.

Ezkatzeakoak ziran. Etxian ez ba zan, aldamenian, bañan auzoan.

Ni ez nintzan mugitu; illa bezela gelditu nintzan. Ez nere barruan bare zegoalako. Imanol zurrungaka oraindik. Itz susmur bat eldu zitzaidan Nemexio-ren gelatik. Bere emaztearekin izketan ari zan, nonbait. Eta ala gaudela, beste:

"Tan, tan, tan, tan!"... lau atejokada berri; bañan len baño burrunbatsuagoak. Eta bulla puska bat ere entzun nuan kalean. Nemexio jeiki, atea iriki ta ezkatzera abiatu zan.

Bere emazteak esan ere egin zion:

– Ankutsik ez zaitezela ibili, Nemexio...

– Ez, emakumea...

Beko atea Nemexio'k nola iriki zuan sumatu nuan.

Nunbait, Allurralde aldean, zaunka bat lertu zan, eta gero Artola'neko baratzean zeukaten txakur aundi arek erantzun zion.

Imanol orduantxe esnatu zan:

- Zer da?...
- Beko atia... Aita oraintxe jetxi dek.
- Ire gurasoak izango dituk.
- Bai ote?...

Itxaropen berri bat jaio zitzaidan buruan, eta leiora joan nintzan.

- Tia, oiera -esan ziran Iñaxi'k leio ondoan. Bañan biok an geratu giñan zur-sare tartetik zer ikusi ta zer entzun.

- ¡Le decimos que ahora mismo, como está!... -entzun genduan.

Gero, Nemexio'ren itz apal eta ixil batzuek.

Eta gero, berriz:

- ¡Le digo que no hay tiempo, suba al camión, ¡rojo!!...

Nemexio!!!... - egin zuan karraxi bere emazteak, eta "pilli-pala", leioko bi atek bat-batera iriki zituan.

- ¡Cierre esas ventanas o le pego un tiro!...

Andrearen ez zion kasorik egin, eta karraxika asi zan: "Nora daramakizute nere gizona garai ontan!... Por qué llevan a mi marido, el no ha hecho nada!"...

Imanol eta Arantxa nere ondoan zeuden, negarrez.

Nemexio gizarajoa, berriz, birau artean, ostikoka, kamioi baten sartu zuten.

Kamioi arek joaterakoan atera zuan burrundara ez zuan Andoain'go erriak egundano entzun.

Nemexio'ren emazteari lenengo bururatu zitzaiona: apaizaren etxera joatea.

Erdi zoraturik, berez, atera zan emakumea kalera.

Aldameneko etxe batzuetan itz otsak entzuten ziran; bañan ez zan inor ezer esatera ausartu.

Andre ura, bere errian geratu ziranen artean, ia señide ziranen artean, eliz batean bataiatu, eliz bertan Jaungoiko berari otoi egin eta lenengo Jauna artu, jolas berak alkarrekin egin, gose ta ase berak alkarrekin igaro, soñu berarekin poz-dantzak beko edo goiko plazan egin, apaiz batek ezkondu ta alkarren ondoan seme-alabak azi zituztenen artean bakarbakarrak arkitu zan gau izugarri artan.

Berriz etxeratu zanean, goizaldia zan.

Esnezalaren bat edo beste ausartu zan bere astoarekin kalera jextera; ta txapel gorri ta militar pranko azaldu zan nonbaitetik. Tranbea, beti bostetan oi zuan bezela, ez zan urten. Elizondo'k oi zituan esne-ontzi garbitze soñuak ere ixil-ixilik geratu ziran goiz artan. Bezperan ixilik eta apal zeuden karlista batzuek txapel gorritz apaindu ta azaldu ziran, nabarmen, berak ere barrendik bildurrak ba'laude bezela.

Iñaxi'k ikusi omen zuan bere senarra. Erri-etxe'ko kartzelan omen zeukaten, bañan ez ziotela berarekin itzegiten utzi. Serore etxe aldetik dagon burni-taketako leio beltz-itxusi arretatik begiratu ta ikusi omen zuan. Erriko norbaitengana joateko eskatu omen zion Nemexio'k. Kartzela gordetzen zeuden danak kanpotarrak omen zirala.

Bañan kanpotar aiei Nemexio abertzalea zala ta non bizi zan eta errian geratu zala norbaitek esan zizkioten!

Erritarrak, noski!

Ba'al'liteke olakorik?!

Bai.

Nor edo nortzuk ote ziran?!

Eta estuasun orretan iñor ageri ez; Jaungoikoaren itxaropen uts-utsa. Bañan uts-bete-betea, ordea, burua ta biotza zutunik eukitzeko añekoa. Ez da olakotan nolanaiko itxaropena bear! Nemexio bera lasai omen zegoala, berak ez zuala ezertxo ere txarrik egin eta.

Ala zion Iñaxi'k,

Bera, Iñaxi bera, ez, ez zegoan lasai, gaxoa.

– Iñaxi ta nora esan dizu Nemexio'k joateko?

– Elizanburu-rena.

– Ta izan al'zera?

– Bai, baña ez; alperrik...– eta begiak malkoz bete zitzaizkion.

Erritarrak, ia anaiak, Nemexio ain ondo ezagutzen zuten euskotarrak, euskaldunak (odol bera, itz-bide bera) eta aiek ez zekatela ezer egiterik. Zergaitikan sartu zan politika gauzetan, zergutxiotan!... "Ñaxioñalixta ba'zan, or konpon; berak ikusiko zuala zer egiten ibili zan!".

– Zer egiten ibili dan?... Zuek ez al'dakizute?– esan omen zion Iñaxi'k. –Eta alako pekatua alda ba abertzalea izatea? Zu ere karlista ziñan beste oiek sartu baño lenago, bañan ez zizuten orregatik kalterik egin. Gorde, bear ba'da; kanpotik etorri ziran maketo zital aietatik gorde, badaren ba'da...

– Guk ez daukagu ezer egiterik, berak ikusiko du zer egin duan; eta zenbat eta ixilago egon, obe...

– Eta zuk, Iñaxi, zer egin dezu? –galdetu nion.

Imanol eta Arantxa entzuten zeuden, gaxoak; negarrez.

– Zer egingo nuan, don Miguel'ena joan. Gañeko apaiz guziak atera dira; au bakarrik geratu omen da errian, eta...

– Eta don Miguel'ek, zer?

– Bera ere bildurrak dagoala, berak zer egingo duan ba. Ernani'ko don Leandro erretore jauna ere kartzelan daukatela ta azkenean ilko ote duten... Jesus, Jaungoikoa, zer ikusi bear ote degu!...

– Bañan karlistak elizkoiak ba'dira, nola ilko dituzte apaizak, ama –esan zion Imanol'ek.

– Ori esan diot don Miguel'eri, seme, bañan mutututa geratu zait; erantzunik ez dit eman.

Ixil-ixilik egon giñan puska luze batean.

– Ta aita ilko al dute, ama? –galdetu zion bat-batean, begiak aundi-aundi zabaldua, Arantxa'k.

Lauok negarrez geratu giñan sukaldean.

Txikia, aingerua bezela, bere sieskatxuan lo.

Zortziak aldean, gu oraindikan gosaltzeko geundela gogoratu zan Iñaxi. Esnezalea orduantxe sukaldera, aterik jo gabe, oi zuan bezela, sartu zan. Sartu ta guri begira, txuri-txuri geratu zan.

– Jakin al'dezu, Joxepa? –esan zion, aulki, Iñaxi'k.

– Bai, oraintxe, or dakarkite...

Etxe oso-osea bat-batean gure gaiñera erroiztu izan ba'zan ez genduan danok batera Iñaxi'k bere emakume sentzune zorrotzarekin dana iruditu ta atera zuan alako oiukarraxirik aterako.

An zeukaten Nemexio kamioi gañean, tranbeko geltoki aurrean, etxetik urten zanean zamakizkian galtzak, apretak txiñalka ta barrengo elastikuaren gañean bota zuan txamartxo zar batekin jantzita.

Beti txapelakin ibilli oi zan gizona, kaskutsik zegoan.

Santu bat zirudin.

Alako irripar triste-triste bat bialdu zuan al izan zuan kemen guziarekin bere etxeoko leiora, gizarajoak.

Eskumuturrak gerri atzean lotuta, anak txankotilletan lokarrituta zeuzkan.

Aldamenean militar bat eta lau palanjista oietakuak eta iru txapel gorri.

Ixil-geldik, erriko bat edo beste, begira.

Leioak, geienak itxita.

Erri oso-osea ilda geratu ba'litz bezela zegoan; erailtzera zamakiten gizonaren eriotzaurrea ixilpean gorde nai ba'lu bezela.

– ¡Bájalo del camión! –geltokitik atera zan mutur beltz batek egin zuan oiuk.

– ¡Que bajas! –Nemexio'k aldamenean zeukan txapel-gorriak zaunka.

Nemexio ezin igitu. Begi aundi aiek bai argi, norbaiteri zerbait adierazi naiean bezela! Otoi egiten noski. Txapel-gorria igo, ostiko bat eman eta kamioitik arto saku bat bezela bota zuan lurreraño, gizona.

Lurra gorritu zuan Nemexio'k. Eta alako il zoriko antsi apal bat nonbaitetik urten zitzaion.

Iñaxi'k egin zuan karraxia erri guziak entzun zuan. Goiko bizi-lagunak geiago ezin eta zatoztilla Iñaxi atean arrapatu-zuten:

– Ezaiñala orain atera!...

Ni bai, atera nintzan.

Atera ez ba'nintza!... Damutu zitzaidan.

Nemexio Tolosa'ra zaramakitela entzun nion kapitanari, ta ni Billabona aldera, oñez.

Amaiketan eldu nintzan Tolosa'ra. Gure errian baño jende geiago zebillen kalean. Erriko-etxearen aurrean berebiziko jendea zebillen, ara ta onera. Beste ilketa bat goizean izango zala entzun nion gudari bateri, Kanposantuan izango zala.

Ibili nintzan batera ta bestera Nemexio ikusten ote nuan, bañan arrastorik ez.

Egun guzia jo onera ta jo ara, goseak jo niñun ni.

II bear zituztenen izenik ez nuan jakiterik izan. Neri nork esango ziran ba alakorik!

Gaberako lertuta negoan.

Eta, ala nebillela, Kaletxiki-ko mutil-lagun bat plazan, beste bere kidako bi mutillekin.

Bere izebaren etxean zegoala; bere aita ta ama an egon zirala bart, bañan ikaratuta iges egin zutela, Prantzi aldera edo. Anjelito gure laguna Irun'en il zutela. Kopeta erdi-erdian tiro bat artu ta San Marcial'en geratu zala. Nik ere esan nizkion nereak, eta bere izebagana eraman ninduen Joxe'k.

Izeba pixka bat bildurdu zan ni an bakarrik arkitzearekin; bañan Joxe'k konpondu zituan gauzak, egoki asko.

Ta an, apal ondoan oiera bialdu giñuztenean, eskatu nion Joxe'ri urrungo egunean goiz kanposantura laguntzeko.

Ikaratu zan Joxe; bañan bestela ni bakarrik joango nintzala esan nionean, bera ere pixka bat arrotu zan:

– Nik bildurra?... Bein baño geiagotan izandu nak aldamenen dagon sagastian!...

Aitaren bildurrik ez, izeba nola nai atzipetzen zuan, eta urrungo eguneko lau-lauetarako etxetik ixilpean iges egitera ausartu zan nerekin.

Gu plazara eltzen da elizako kanpai argizkilla; ta erlojuak lau tanto.

Erri osoa ixil-ixil eta illunpean zegoan.

Nik ez nuan uste kanposantua orren urruti zegoanik.

Aurrena, ate aldetik begiratu, gero atze aldetik batera eta bestera ibilli, bildurra gendaukala bata besteari aitortu gabe, ta alako batean Joxe ormatik gora igo zitzaidan.

Biok dardarka, itzik esan gabe, ordu erdi bat egon giñan.

Nekatuak geuden; ez bai'gendun ia lorik egin.

– Otza al daukak? –galdetu nion.

– Nik ez, eta ik?

– Nik ere ez.

Ez zan an otzik. Udarako egun-senti epel-epel bat zetorren zerutik bera.

Bildurra bai.

Bañan alkar aitortu nai ez.

Kanposantuan iñortxo ere ez zegoan.

– Nemexio ekarriko dutela ba'al dakik?

– Nik ez...

Nik ez nekiela esan nion; bañan ba'daren ba'da ere ikusi nai nuala.

Txori-sail bat igaro zan txioka ego aldera.

Bildurgarria da kanposantu bat egun txintan!

Dana jaiotzera dioan bat-batean il obia besterik aldamenen ez ikusteak alako naigabe izugarri bat ematen du.

Alako baten, gudari talde bat, txapel-gorri, txapel-beltz, alkandor urdin, militar, meztatik atera ta ba'latozti bezela, izketan.

Zigarroak pixtu ta panteoi baten ondoan ordu erdi bat gutxienez egon ziran.

Egun ori-gorria sorkaldetik igotzen asi zan.

Eta alako batean, kamioi bat. Beste militar eta alkandor urdin mordo bat jetxi zan bertatik, eta agindu-ots gogor batzuek entzun ginitun.

Gero, amets bat ba'liz bezela!:

Kapillatxoren orma kontra gizonak (zortzi ziran) jarri, ta atzeratxuago, bañan bertan, asarre gabe zeuden beste amar bat gizonak:

– Pan-pan!...

Gizonak, mamuxel aundi batzuek ba'lira bezela, zapla!

Alde batekoak erori bearrean, bestekoak erori izan ba'ziran, berdin irukiko zitzaigun guri.

Nor zan ango epaille?

Nor eraille?

Fusillak zituztenak al'zuten arrazoi?

Ta Jaungoikoa, non ote zan?

An inguruan ziran txori guziak kabiak utzi ta norabaitera igesi joan ziran txio-txioka.

– Nemexio ikusi al'dek? (belarrira Joxe'k).

– Ez... Ez dixkiat ondo ikusi (belarrira Joxe'ri).

Gero, utsa: danak etxera; azkar, ezer gertatu ez ba'litz bezela, bañan azkar; azkarregi. Txoriak bezela, norabait igesi.

Gu, zai geratu giñan, orma bazter batean gordeta. Aietatik gizon bat geratu zan.

Zuloak egiten.

Gu agertu giñanean, asarretu zan.

Bañan nik osaba bat ikusi nai nuala, ta utzi ziran arrimatzen.

Zulogilleak loa galdu arpegia zeukan.

Antxe, burua ageri zuala, beste baten azpian, Nemexio gizarajoa, txuri-txuri, kaskutsik, gorroto gabeko begi apal aiakin gora begira.

Ez zidaten geiegi begiratzen utzi.

Gero, ikaratuta, laguna ere galdu nuan bidean.

Gabean eldu nintzan errira.

Ez dakit nola, bañan Nemexio il zala ba'zekiten etxean.

Eta Andoain'en alako izugarritzko zerbait lertu zan.

Martín Ugalde.

Ama Gaxo Dago.

1963. 32-37 orr.

IV ATALA

Lengo gela. Unai exerita, zerbait idazten

UNAI. *Idazten ari dala, mantxo esaten:* "Ama oraindik gaxo dago, Migel. Bañan pixkortzeko bidean dijoa. Gure asmoetatik urruti ba'zaude ere, zu oraindik bere semea zera; euskotar guziak bai gera bere semeak"...

GAZTEA. *Ikusleen artean dagon ogei bat urteko mutil-gizon bat; nabarmendu lezaken jantzirik ez du bear; alkitik altxa arte aurkesleetako bat dala ez du iñork konturatu bear.* Ni ez naiz zuek or diozuten emakume orren semea!

UNAI. *Altxiaz:* Zu? Nor zera zu?

GAZTEA. Ni, Joxe Urbistondo, erri onetako seme bat.

UNAI. Ta zu ez zerala ama orren semea?

GAZTEA. Ez, zuk diozun andre ori ez da gure etxean beñere bizi izandu! Nola izango da ba'nere ama?!

UNAI. *Antzektoki ertzera aurreratuz, ixiltxio itzegiñez: Ez zazu orrenbeste abotza jaso, semetzaz zaitun ama orrek ori entzungo ba'lizu, naigabez ilko litzake ta... Zure etxean andre ori ez dala bizi izandu diozu?*

GAZTEA. Nik zentzuna dauketan ezkeru ez beintzat...

GIZONA. *Ikusleen artean, beste puntako alki batean exerita dagoan berrogei ta bost bat urteko gizon bat altxatzen da. Gaztea oraindik zutik geratzen da. Nerea bai!*

GAZTEA. *Arrituta: Zurea!?*

UNAI. Zu? Zein zara zu?

GIZONA. Ni, Joxe Migel Urbistondo naiz, Joxe'ren aita.

UNAI. *Gazteari begira: Gizon au zure gurasoa al'da?*

GAZTEA. Bai, nere aita da.

UNAI. Ta zuk, Joxe Migel, il zorian dagoan emakume ori esagutzen al'dezu?

GIZONA. *Pixka bat lotzatuta bezala: Bai, gurekin bizi zan...*

UNAI. Ta zuekin bizi zan andre ori zuen señaidea al'zan?

GIZONA. Bai, ni jaio ezkeru Antzizar baserrian etxeko-andre zan...

GAZTEA. *Ia karraxika, aitari begira: Eta zergatik ez dirazu beñere olakorik aitatu?!*

GIZONA. *Ixilik, burua makur.*

GAZTEA. *Gogor: Bañan emakume ori gure ama ba'da, nola ez dirazu neri erakutsi?!*

GIZONA. Seme... Zuri miñik ez emateagaitik.

UNAI. Zergaitik?... Orain gaxo ta txiro ta baztertua dagolako lotzatzen al'zaitu zure amak?

GIZONA. Ez da orregaitik...

GAZTEA. Zergaitik ba'?!?

GIZONA. Guk naikoa supritu gendun... Zertarako jarri gure semeak berriro kezka orretan?

GAZTEA. Zertarako?! Ez al'da ba'gure ama?!

GIZONA. Bai...

GAZTEA. Ama batek, gure odoleko ama batek, ez al'du ba'kezka bat balio?!

GIZONA. *Ixilik*

GAZTEA. Aita! *Karraxika* Ez al'du ba'ama batek, guri bizia eman digun ama batek, orrenbeste merezi?!

UNAI. *Ixilik, ama esnatuko dezu ta.*

GAZTEA. *Ixillago: Erantzun akidazu, aita, ez al'du ba'ama batek kezka bat balio?*

GIZONA. Bai, bai... Bañan, orretaz gañera... *Gogor xamar: giñanean ama orrek erdi utzi giñuen eta...*

UNAI. *Ixiltzeko kiñua egiñaz, ta abotza pixka bat jetxiaz: Amak zuek utzi?... Ez dezala ori entzun, ilko litzake ta. Ez al'zenduten, gero, zuek ama utziko?*

GIZONA. Ez dakit ba'... Dana dala, beste emakume bat sartu zan etxera...

GAZTEA. *Karraxika: Ta andre ori erakutsi zidazun zuk ama bezela!*

GIZONA. *Burua makur: Norbait bear genduan eta...*

UNAI. Andre ori ugazama bezela eman diozu zure semeari...

GIZONA. Bai.

UNAI. Ta ugazama etxean sartu dezutela, ta pixkorragoa dala, ta zuen ama, zuen odoleko ama, utzi dezute etxetik kanpora?

GIZONA. Etxetik kanpora... *Osorik ala ez ba'litzake bezela.*

UNAI. Etxetik kanpora! Bai! Zure semeari ere erakusteko lotzaz!

GIZONA. *Ixilik*

UNAI. Orduan, ama baño pixkorragoa dala, ta ama etxetik kanpora bota ta iltzen utzi dezute!...

GIZONA. Iltzen utzi ez... Bera gaxotu zan! Eta orregaitik jarri nion semeari bein-betiko ugazama berria, ta kito!...

ZARRA. Zer?! Ta kito?!... *Ikusleen artean dagon irurogei ta amar bat urteko aitona.*

UNAI. Zu, zein zera zu?

ZARRA. Ni, Antzizar baserriko Joxe Urbistondo naiz, Joxe Migel'en aita, ta Joxe'ren aitona... *Ta mantzoago, bañan asarreago, semeari:* Ama ukatzen duanak, aita ukatu dik; eta egia zioat, ni iñoiz ukatzen ba'nauk bertan ilko aut!!...

GAZTEA. Aitona!...

AITONA. Bai, ta ikasi zak ik ere. Zuek aboan dabilkizuten emakume ori beste amik ez diagu esagutu gure sendian...

UNAI. Ama ori ugazama bera baño aulagoa dala uste al'dezu?

ZARRA. Ez, arraio-pola! Kalera jetxi ta ba'liteke pixka bat makaltzea, ez dago orretara oitua ta... Bañan kalean ere oitzeko emakume gordiña da ori!

GIZONA. Gordiña? Ta fabrikara eltzen danerako ez du kemenik?

ZARRA. Emakume ori esagutzen diat nik ondo; ta laguntzen ba'zaio, bear diran erremedioak eman eta, batez ere, bear duan maitasuna ematen ba'zaio, emakume ori pixkortuko dek berriz...

GIZONA. Pixkortu? Il zorian ez dago ba'?...

UNAI. Orregaitik bear du ba'laguntza orain!

GIZONA. Zer eman genezake?

UNAI. Maitasuna ta gizatasuna.

GAZTEA. Ni gertu nago. *Ta antzeztokira igotzea da...*

ZARRA. *Gazteari gora igotzeko denbora eman eta gero, bere semeari begira.* Ni ere ba'niak... Ta ik zer diok? *Eta orduan bera abiatzen da.*

GIZONA. *Zarra gora igo arte zai, ta gero:* Ez da au nere aurreneko laguntza, ez uste!... Ta osasun itxaropenik ba'dago, ez naiz ni atzera geratuko berriz ere... *Ta bera ere abiatzen da.*

ITXASO. *Orduantxe sartzen.* Ara! Ama ikustera al'zatozte?...

UNAI. Bai... Esnatu ote da?

ITXASO. Ba'noa. *Ta gela-atea iriki ta sartzen da, ta atea berriz ixten du.* Gizonak bere artean izketan bezela geratzen dira.

IÑAXI. *Sukaldeko atea bereala iriki ta ate ertzetik, pozik.* Ara, Antzizar'ekoak emen?

SABIN. *Sabin sartzen da atzetik don Arturo'kin.* Ara! Zer zabilzate zuek emen...

ZARRA. Zer? Gure ama ikustera gatozek!... Nola ziok?

SABIN. Obeto, obeto... Ta zuek ikusten zaituztenean poz ederra artuko dik!

IÑAXI. Ta Itxaso nun da?

UNAI. Barrenen. *Ta amaren atea erakusten du.*

IÑAXI. Ba'noa. *Ta sartzen da.*

ARTURO. *Sabin'eri:* Ta Miguel'en berririk bai al'dezute?

SABIN. Unai, idatzi al'diozu?

UNAI. Bai, ortan ari nintzan. *Maia erakusten du*. Ta esaten diot, etortzeko, ama pixkortzen ari dala...

ARTURO. Bai, Miguel ikusiko ba'lu, poztuko litzake emakume ori!...

ITXASO. *Atera irikita, pozik*. Ama esna dago. Sartu, sartu...

Aurrena Sabin sartzten da, ta gero don Arturo; ta gero, irurak alkar begiratu ondoren, lenen zarra, gero gizona ta azkenik gaztea sartzten dira. Unai exeritzen da maiean eta idazten jartzen da.

Dei bat entzuten da, sukaldetik edo.

MIGEL. *Kanpotik*. Ez al'dago iñor! Izeba!

UNAI. *Pozik*: Migel!

MIGEL. *Sartzten, txapel apaña eskuetan daukala, Unai'ri*: Ez al'dago iñor etxean?

UNAI. Ara ni emen... Zuri idazten ari nintzan. *Altxatzen da*.

MIGEL. Ta ama?

UNAI. Ama? Obeto, askoz ere obeto... Zu ikustearekin poztuko da... *Eta Migel bizkarretik artu ta barrura daramaki. Gero, atea erdi irikita gelditzen da, ta emakume abotz jaso bat entzuten da:*

AMA. Miguel!...

Musika alaia asten da.

Argia itzaltzen da.

Kanpoko argiak pixtutzen dira, ta musika pixka bat luzatzen da.

Martin Ugalde.

Umeentzako Kontuak.

Zarautz: Itxaropena. 1966.

9-16 orr.

Itz-aurrea

Gure umeetan ilko al da euskera?

Nere aitonak erderaz tutik ez zekian; nere aitak nolabait ikasi bear izandu zuan pixka bat, aurrera aterako bazan; nik nai ta nai ez ikasi bear, gure erriko ikastolak erderaz ikasteko jarriak ditugu ta; nere semetxoak, berriz, etxetik kanporako itz-bideetara esnatzen asi diranerako sortu zait kezka: nere semeak, nere aitonaren odoleko ta itzbideko ondorengoak, betiko euskera galduko ote dute?

Konturatzen naiz: ume oien aotan gure izkuntz iturria agortzen ba da gure erriaren zain bat igartuko da. Au izango litzake lau jenerazio barru izkuntz bat, millaka urte ditun izkuntz bat, oso-osorik akatzea. Besteren baten ilketa bat izango litzake au, noski, baiñan gorputz-illa gure ta gure semeen bizkar gañera eroriko litzake.

Ta gure aurrekoak eta gure ondorengoak ez liguteke barkatuko.

Nere kezka ez baita nere bakarra, ta ezperientzi oietan alkar lagundu bear diogun asmoarekin nator emen nere kezka ta asmo batzuek azaltzera.

Bi izkuntz geiegi?

Lenen, ez daukagu oraingoz beintzat igez egiterik: bi edo iru izkuntzeko aurrak ditugu. Españeraz edo prantzezez, edo bietara ikasi bear dute gure semeak. Ikasteak ez du kalterik. Ni ez naiz ikastearen aurka neronek lau izkuntz ikasi ditut, eta besteren bat ikasteko itxaropenik ez det galdu; gurea ez ikastea, gure ostiadatzea, da kaltegarri ta negargarria.

Euskeraren bizia gure aurren eskuetan daukagu; baiñan aurrena gure eskuetan, edo gure biotzetan. Umetan errex ikasten dira izkuntzak; baita bi ta iru ere; ta zenbat eta geiago ikasi trebetasun geiago sortzen da. Egi-egitan izkuntz bat ezagutzeko, besteren bat ikasi bear da; alkar konparatzeak gauz asko erakusten dizkigu ta. Bein zartu eskero izaten dira lanak! Baiñan umeak ez dute berez ikasiko; gure laguntza, zarragoen laguntza, bear dute; gurasoen buru ta biotzen laguntza.

Izkuntzaren izamena

Izkera ez da oñez ibiltzen bezela ikasten.

Alegia, ume bat bakarrik utzi zazu ta beste iñor bere inguruan ibiltzen ez ikusi arren, aurrak berez zutik jarri ta ibiltzen ikasiko dizu; or baidauzka bere ankatxoak lan ori egiteko gertuak eta or baidauka orretarako bear duan indarra.

Baiña izketan ez dizu umeak bakarrik ikasiko Muñak or euki arren, mingaiña or euki arren, lan orretarako buru kemen eta argi guziak or euki arren, umeak ez du itz egiten *ikasiko izketan entzuten* ez badu. Txina'n jaio edo Euskal Erria'n jaio, umeak ibillera ekarriko du berez; baiñan bere itz egite bidea ez da berdiña izango: *bakoitzak bere sendikoa, bere sendian entzuten duana ikasiko du*; eta ezer entzuten ez badu, ez du itz egingo.

Orregatik, umeak euskeraz itz egingo badu, euskeraz itz egiten entzun bear.

Itz eta entzun bideak

Nun entzungo du aurrak euskeraz?

Ziur egon zaitez, ez dizu erratioan edo telebisioan entzungo; zinean ere ez; kalean ere ez asko, zoritxarrez.

Bide oiek oraindik debekatuak edo oso motzak ditu gure izkuntzak. Etxean entzun bear aurrena; noski, *zuk euskeraz egiten badezu*.

Aurra euskelduna izatea nai badezu, jarri zazu etxean euskera entzuten. Umeak ez dizu esaten diozuna ikasiko, egiten ikusten dizuna edo entzuten dizuna baizik; aita-amak eta anai-arreba zarragoak zer egin eta zer esan, ura egin eta ura esango dizu umeak. Lenengo bost urteak bere-biziko garrantzia omen dute. Gero, al bada, eusko lagun artean jarri; umeak lagunakin egiten duan guzia indar aundiko ezperientzia izaten

da ta. Gero, ikastolan al ba liteke, ikastolan; baiñan badakigu au batzuetan zalla dala, oraindik beintzat.

Bere aurrei batere laguntzen ez dioten guraso euskeldun asko ezagutzen ditut. Bere aurrak euskeraz egitea nai dute, baiñan senar-emazte artean erderaz aritzen dira. Orrelako gurasoekin umea ez da euskeldun egingo. Euskera ulertuko du bear ba da, baiñan ez du umeak euskeraz itz egingo.

Bere aurrari euskeraz egiten dioten gurasoak beren artean euskeraz egiten ez ba dute, ez dute bere umea euskeraz egiten jarriko. Umeak euskeraz entzungo du, ta ulertuko du, baiñan erderaz erantzungo du. Umeak ez du euskeraz ulertzea galduko aurrena, baiñan pixkanaka-pixkanaka galtzen joango da. Ta umeak berak euskeraz erantzuten ez ba dizu, galdu zazu. Ume au euskeldun-alperra edo pasiboa izango da lenen, ta gero euskeldun izatez utziko du.

Nola liteken au?

Ba dakigu entzun-bideak eta itz-bideak izate berdiñekoak ez dirala. Izkuntz bat entzuten eta irakurtzen ikastea ez da orren zalla. Beste buru batek asmatutakoa entzun edo irakurtzea errez xamarra da; buruauzte bat asmatzea bezela. Baiñan bakoitzak bere buruan sumatu, ta gero itzak alkar erantzi, ta oiek besteren baten belarriaren bidez beste norbaiteri zerbait adieraztea, bata besteari zerbait komunikatzea, ori da zaila. Ta izkuntz nagusitasun ori itz egiñez bakarrik irixten da. Lan ori egitera umea beartu egin bear da. Zuri euskeraz entzun ondoren, berak euskeraz erantzun bear dizu. Lan ori egitera umea beartzen ez badezu, ez du berez egingo. Euskeldun-alper izatera jetxiko zaizu semea aurrena, ta gero erdeldun utzean geratuko zaizu.

Zure eusko saña igartu zaizu.

Jaungoiko ta imajinazio bideak

Gaur gauden bezela, ikastolik gabe, gure umea euskeldun osoa egin nai badegu, umearen buru ta irudimen edo imajinazioko bide zabalak ere euskeraz etxean erabili bearrean gera.

Etxeko gora-berak entzutearekin ez du umeak naikoa. Umearen buru argiarentzat mundu txikia da ori. Bere kontutxoak euskeraz entzun bear ditu bost edo sei urte arte, ta gero berak irakurri bear ditu; ta bere otoiak euskeraz ikasi bear ditu. Biotzeko ta imajinazioko bide oiek zabal-zabal irikita dauzka umeak, eta esanak askar eta sakon sartzen dira umearen gogoan. Jaungoikoarekin euskeraz egiten duan umea, euskera bidean dijoakizu. Ipuin mundu zoragarri ori euskeraz sortzen ba diozu, bere barruko izkuntzari sustrai ederrak ematen ari zera. Euskeraz sartzen ez bazaizka, erderaz sartuko zaizka, ta oiek moldatuko dute zure biarko semea.

Espaneraz edo prantzezez nai añeko liburu-aukera badu gure umeak, baiñan euskerazko liburu gutxi dauzkagu. Ez umeak bakarrik, gurasook ere oien bearrean gaude, ez degu guetako bakoitzak oiek asmatzeko astirik eta. Ta ditugun liburu oietako geienak umeentzako balio ez dutenak dirala uste det; au da nere ustea, beintzat.

Umeentzat kontua

Umearen burua arrigarri-gose dago beti, ta etxe barrunbeko mundua txikitxo zaio. Bere imajinazioko mundua zabaleko bideak ibiltzen gurasook lagundu bear diogu, bestela berez edo besteak zuzendutako bideak artuko ditu ta.

Ta gai onetzaz ari naizela, umeentzako kontuak aitatu ditut. Nola izan bear duten umeen kontuak?

Lenen, umeen kontuak umeentzat izan bear dute. Onek azpaldiko edo perogrullokeri bat dirudi, ez alda ala? Baiñan oiek ere esan bear ditugu eta berriz. Alegia, umeak berak ibiltzen dituzten itz neurrian egiñak izan bear dute kontutxo oiek; umeak ulertzen dituzten gertaerak erabiliaz, umeak berak esagutzen dituzten jende, abere ta gauzak bakarrik aitatuaz eta konparatuaz, eta berak bere laguntxoekin erabiltzen dituzten berbo ta itzak bakarrik erabiliaz. Ta gañera, beti itzak berdin idatziaz. Bein "itxogin" itza erabiltzen ba degun, gero ez "itxoin" jarri, edo "itxadon" esan; umea nastu ta aspertuko degu eta.

Entzun eta irakurtzeko kontuak

Gero, bi erako kontuak idatzi bear ditugu gutxienez: entzutekoak eta irakurtzekoak.

Bost edo sei urte arte, beintzat, umeak bere kontutxoak entzun egin bear ditu; ta aurrera irakurtzen ikasten duanean, umeak berak irakurri bear ditu. Umeei irakurriz, gurasoak euskeraz irakurtzen oituko dira; euskeldun geienak ez daude ta euskeraz irakurtzen ikasiak. Euskotarrak gure izkuntzean analfabetoak baigera. Argi ibilli gaitzen emen: gaurko ta biarko munduan ez da irakurtzen ez dan izkuntzarik bizirik geratuko.

Entzuteko ta irakurtzeko onetan zer diperentzi dagon?

Entzuten ditugun gauzak ez ditugu irakurtzen ditugun bezalako neurrian ulertzen. Entzuerak denbora motxa du, ta entzuten dana irakurtze ari danaren esku dago; erratioan entzuten degun zerbait ulertzen ez badegu, joana da. Irakurtzen ari geranean, berriz, itz bat ulertzen ez badegu, atzera joan geniteke; ta idea oso bat galtzen badegu, errenkada bat edo bost atzera joan geniteke. Bide bakoitzak bere uler-neurria denbora ba ditu.

Bakoitzak bere neurria

Umeak *entzuteko* idazten diran kontuak oso errexak izan bear dute. Batetik, itz errexak, eta bestetik, aixa ulertzeko gertaerak erabiliaz. Eta gero, frase motxak egiñaz. Onena: asmo edo idea bakoitzarako frase bat. Eta asmo ta itz zailtxoenak bi edo iru aldiz esan.

Umeak *irakurtzeko* idazten diran kontuak, berriz, pixka bat jaso liteke; umeak irakurtzen duana ulertzeko denbora artuko du ta. Baiñan emen ere arreta berdiña euki bearrean gera. Umearen lenengo euskera lanetan ez degu nekatu ta azpeltu bear.

Batez ere, kontu oiekin ez degu literaturarik egin bear. Ez ta periodismorik ere. Ez ta ensaiorik ere. Umeen kontuan, *kontuak dira, ta umeentzat*.

Umeak berak irakurri bear dutenean, begi-bideak ere erreztu bear zaizka. Letra aundia, ta orriak geiegi bete gabe bear dituzte; al ba da marrazki ta argazkiekin apainduta. Oraindik umearen naimen edo borondate bideak ez dira egin, ez du disziplinarik ikasi, ta bide oiek al ditugun neurrian errextu bear dizkiogu.

Berez, euskerak ba dauzka bere zailtasunak.

Euskera aoz-ao bakarrik gorde dan izkuntza izan da. Ba dakigu izkuntz guziak bi eratako bideak izaten dituztela gutxienez: bat etxeko ta kaleko izkuntza, ta bestea, berriz, ikastolakoa ta literaturakoa. Izkuntz geienetan diparentziak ez dira aundiak izaten, bi erak alkarrekin ikasten eta erabiltzen dituzte ta. Españeraz erriak "yo he estau aqui" esango dizu, eta idazten ikasi ba du: "Yo he estado aqui" idatziko dizu; ta orrela, millaka itz. Eta guk? Ez ba degu irakurtzen, ez ba degu idazten, aoz-ao erebiltzen degun euskera bakarrik ikasi ba degu, orretan bakarrik geratzen gera. Ta: "laun askokin jun nitzan" esaten oituak ba gaude, "lagun askorekin joan nintzan" irakurtzea zail egiten zaigu. Nola gure izkuntzaren akatz aundi-aundi au konpondu? Irakurriz eta idatziz.

Umeentzat lan au beriala asi bearrean gera. Itzak bear bezela idatziak ikusi bear dituzte. Orregaitik, au bera ba da naikoa, bai, eta itzak errezak eman bear zaizka, ta asmo bideak ere garbiak eta beren adiñeko neurrikoak.

Martín Ugalde.

Itzultzera Baten Istoria.

Donostia: Elkar. 1990.

193-199 orr.

Urtarrilean jaso nuen aitatzoren gutuna esanez urdailean molestia txiki batzu zituela, joan zela sendagile holandar bat ikustera Aruban, eta ultzera bat zuela esan ziola; tratamenduan jarri zuela, baina horrekin konpontzen ez bazen hobe izango zela ebakuntza bat egitea; batez ere untzian errejimenak jarraitzea zaila egiten zelako. Uste zuen, horko beroek ere ez ziotela onik egiten, asko sufritzen zuen bero handi horiekin, zioen berak, eta urtarorik gabe!!

Urtaroak ziren aitatzoren gai nagusia.

Behar zituen, nonbait!

Bere aldetik, amatxok esaten zidan aita egun batzutan lehorrean egon zela, eta molestia txiki horiez kexu bazen ere, oso ongi ikusten zuela, eta oso baikor, soldata handia zuelako, eta amari ere denda ongi zihoakionez gero..., eta berri handi bat: Tasio zetorren datorren astean beraiekin egotera!

Laguntzera, seguraski.

Eta niri ez zidan anaiak ezer esan!... Nire laguntza ere beharko zuten ba!...

Ahizpei idatzi nienean ez nien ezer esaten, agindu nien uda pasatzera joango nintzela, eskatzen nien asko ikasteko, ahaleginak egiteko; batez ere Ireneri letra batzu bidaltzeko eskatzen nionez, erantzun zidan laster: "Estudioei dagokienez, ez zaitze 'boltsa' izan!" (en cuanto a los estudios, no sea usted bolsa!)

Hau ezin zen honez gero aldatu.

Otsailaren hasieran, aitaren gutunak iragartzen zidan lurreratu egingo zela, Dr. Gonzalo Aranguren ikus zezan, eta mediku on eta leial honek ere ebaketa bat egin behar zela esan bazion, ebakuntzara zihoala, ez baitzuen holandarrak jarritako tratamenduak ezer egin.

Hala, berriz postariaren zai-zai jarri nintzen.

Hurrengo eskutitza amatxorena izan zen, aita operatu zuten eta ondo ari zen suspertzen, laster jarriko zen ongi eta berak idatziko zidala. Handik laster, martxoaren erdialdean, osaba Iñigo etorri zitzaidan. Amaren eskutitz bat hartu zuen, eta nekatuak sentitzen zuela; gau eta egun aitaxoren ondoan egon behar... alabaren laguntza beharko lukeela, bere ustez...

Zerua ireki zitzaidan!!

Amatxok bere anaiari horrelakorik eskatu ez bazion ere, osaba konturatu zen, eta hau zen biei, aitari eta amari, sorpresatxo bat emateko garaia!

"Hala baderitzazu, konpon zure gauzak, eta bihar goizean etorriko naiz zure bila. Aireporturaino lagunduko dizut".

Denbora gutxi behar izan nuen nire gauzak konpontzeko, eta biharamunean, jarritako orduan, zai nengoen. Goiz irten ginen, hegazkina martxoaren 18ko arratsaldean nuen. Egun seinalatua egin zitzaidan pozbiderako. Londresen izan nuen nahikoa denbora biletea hartu eta denda batzu ikusteko... Hor erosi nion aitaxori entretenigarri polit bat: 800 piezatako buruhauskarria fragata eder bat osatzeko; aitak bazuen gusto berezia horrelako lan luzeekin denbora pasatzeko. Osabak, "Fancy"n gustatu zitzaizkidan zapatak erosi zizkidan!, gorriak, oso politak, eta takoi altu xamarrak zituen nire gustorako, baina hau izango zen nire lehen kapritxoa. Zapadadendatik irten nintzen gona eskozesari ederki egokitzen zitzaion txaketa berdearekin. Pixka bat haunditzen ninduten zapata berriek, eta azkenean ilea moztua nuen ordurako!... Hara bada!... neroni aurkitzen nintzen emakume!...

Osabak, agur egiterakoan, esan zidan: "kontu egiozu orain zure amatxori, deskantza dezala, eta idatzi iezaguzu, arren!!"

Lehen aldia hegazkinez bidaiara egiten nuela:

New-York-era, Irlandan eskalatxo bat egin eta gero. Dena iruditu zitzaidan azkarra, New Yorkeko aireportura heldu ginen arte; emen hiru ordu itxaron behar izan genuen Venezuelarako hegazkina hartzeko. Gero eta urduriago nindoan, laster bainintzen etxean; orain dela ia hamar urte irten nintzen Caracastik, eta oraingo hau ez zen lehengo etxe bizitza, baina gurasoak hor zeuden, nik asko maite nuen eguzkia ere bai, eta lanerako prest nengonez, heldu zitzaidan familiari zerbaitetan laguntzeko garaia, gero denok batera herriratzeko, aitaxok hainbat nahi zuen bezala.

Hainbesteko gorabeherak pasa eta gero!

Maiquetia-ra heldu nintzenean, nire paperez arduratu behar nuen, eta maletaz ere bai, noski, baina azkenean jarri nintzen nire bila norbait etorri ote zan... Ez nuen inor ikusten... Ez nuen ezer esan nik, baina osabak deituko zuen... eta nire maletarekin arduratuta nengoela hurbildu zitzaidan andere batek galdetu zidan: "Endrikeren alaba al zara?... zure bila etorri gara"... Ondo jantzia zegoen gizon bat aurkeztu zidan...

Neuk buruhauskarria neraman eskuetan, maletaren zai, eta gizonak hartu zuen nire maletatxoa.

Eta etxea gero eta gertuago... hona hemen hainbeste bihurgune zituen Caracaserako bide luzea!... orduan ez baitzen oraindik autopistarik..., eta bide zaharrak gogorazten zizkidan hondartzara jaisten gineneoak... Dena utzi bezala, berdina zen oraindik paisaia idorra. Galdetu zidaten ahizpengatik, Ingalaterrako osaba-izebengatik..., denak ezagutzen zituzten, amaxoren eta aitaxoren aspaldiko lagunak ziren.

Hain nengoen hunkituta, oso laburra egin zitzaidan dena... Bero egiten zuen, bai!... ahaztu egin zitzaidan bero hau, eta gainera ia negurako jantzia nentorren!... Eta Caracas barruan, ez nuen erreferentzia ezagunik aurkitzen, oso aldatua zegoen!... Eta bestelako begiekin ari nintzen orain begiratzen, noski!... Ez nintzen ezertaz gogoratzen! Panteón Nacional-era hurbildu ginenean hasi nintzen toki batzu ezagutzen... eta Rosa Chacón-ekin bizi izan ginen etxea ere ikusi nuen... Non ote zegoen andre hura?!...

Eta berehala heldu ginen etxebizitza berrira.

Hirugarren bizitzara igo ginen.

Tirrina jo nuenean eta atea ireki, lore usain estrainioa usaindu nuen. Eta salatxoaren erdian zerraldoa eta nire aita barruan hilda! Uste dut korderik gabe geratu nintzela!... Saloitxoa jendez betea zegoen, denak beltzez jantzita, milaka begi nire bularraren kontra... Harri bihurtu banintz bezala sentitzen nuen dena, barruraino...

Aitaxoren aurrean geratu nintzen, orain hilda!!!!

Jende guztia kanpora botako nuen nik ahal izan banu! Bakarrik geratu nahi nuen berarekin!... bi besoak zerraldoa besarkatzen... itxi nituen begiak eta tximista izugarri batek jo banindu bezala sentitu nintzen goitik beheraino gorputz guztian... ordurarte lo eduki nuen zerbait zen nire gorputza pasatzen ari zena,taupadak bihotzik ez nuen tokian sentitzen nituen, eta nire aitaren begiradak ezetz bazion ere, eta deitzen niri: "Alaba, ez!"... hartu nuen eskupeta eta tiro egin nion osaba Lazarori, zuzenean, hutsik egin gabe, aitak agintzen zidan bezala, probak egitera joaten ginenean bezala... eta belaunetatik behera, aitak esan zuen bezala!... eta hor ikusi nuen osaba Lazaro odoletan ezin pausoa emanik...!... Berriz ikusten nuen aitaren aurpegi ederra; hurbildu nintzaion eta mantso laztandu nuen, iruditu zitzaidan ez zegoela hotza, berdin zegoen, eguzkiak pixka bat beztua, eta bere ile laburra usaia zuen baino luzeago orraztua... Musu eman nion bekoki maite hartan, eta altxatzen ari nintzela iruditu zitzaidan betazal barrutik ikusteko gai nintzela bere begirada naharoa...

Lagundu zidaten amarengana, gelara... Han zegoen besaulkian burua atzera buruki batean deskantsuan. Zuri, begiak itxita. Mme. Simonek, amaxoren lagunak, zaintzen zuen. Frantsesa zen, eta erizaina...

"Ez zaitetz arduratu", esan zidan, "lasaigarri bat eman diot deskantsu har dezan... Atzo lipotimia batek jo zuen, eta sendagileak beste pastila bat agindu du gorpua irteterakoan... Dena hain azkar pasa da! Urgentziaz egin behar izan zioten bigarren ebaketa. Gibleko konplikazio bat... Quelle malheur!..."

"Zer zorigaitza! Horrelako gizon ederra, hain gaztea!!"

Tasioz galdetu nion...

"Itxasoan da; Frantziako enbaxada arduratzen ari da untzia aurkitu eta dei bat irrtati bidez bidaltzeko. Laster izango da hemen".

Irten nintzen berriz. Gero eta jende gehiago zegoen. Hurbildu nintzaion aitari.

Arestian bezalako gauza bera sentitu nuen, eta osaba Lazaroganako sentimendu bera berriz... Gorrotoa ezagutzen ari nintzen, eta barrutik, sakona, sentitzen nuen osabaren aurka. Hau izan zen heriotza honen errudun... Honen erruz nire aitak ezin izan zuen besterik ez bazen ere beti eskatu zituen hiru gauza egin: bere lurrean, hil, seme-alabetako bat ezkondata ikusi eta bilobatxo bat ezagutu.

Kaxa isten ari ziren, eta bazeramaten, eskaileretan behera, eta ni atzetik abiatu nintzen..., Mme. Simonek besotik hartu ninduen arte:

"Gera zaitetz, zure amak beharko zaitu, neuk gaueko txanda dut gaur".

San Jose eguna zen, martxoak 19; nire aitaxok bete berriak zituen, urtarrilean, 48 urte gazte.